

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

953

42/2025 DEKRETUA, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua hirugarrenez aldatzen duena.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen kontratazioaren alorreko berariazko organo aholku-emailea, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 2. artikuluekin lotuta 26.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Dekretu horren aplikazio-eremu subjektiboaren ondorioz, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorraren eginkizunen artean ez dago txostenak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen ez duten entitateek Aholku Batzordearen irizpena eskatzen dutenean kontratazio publikoaren alorreko gaietan, eta entitate horien artean daude toki-entitateak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Euskal Herriko Unibertsitateak, euskal sektore publikoaren parte denez, eskatu du EHU sartzeko Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari kontratuen kostuen egiturari buruzko nahitaezko txostenak eska diezazkioketen organismoen artean; txosten horiek Espainiako ekonomiaren desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan xedatzen dira. Eskumen hori 116/2026 Dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarrian jasotzen da. Horrenbestez, xedapen hori aldatu behar da, aurretik adierazitako eskaerara egokitzeko.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak; bada, kontuan hartuta lege horren 333. artikulua, Ebaluazio Bulego Nazionalaren xedea da obra-emakidetako kontratuen eta zerbitzu-emakidetako kontratuen finantza-jasangarritasuna aztertzea. Hau ezartzen du, halaber, artikulua horren hirugarren apartatuak: «Autonomia-erkidego bakoitzak Ebaluazioko Bulego Nazionalarekin bat egin ahalko du, Bulegoak txosten horiek egin ditzan; bestela, organo edo organismo baliokideren bat sortu badu, nahitaezko txosten horiek organo edo organismo horri eskatuko dizkio, bere emakida-kontratuak ukitzen baditu».

Aurrekoari dagokionez, beharrezkoa iritzi zaio aipatutako txostena EAEko organo batek emateari, eta Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorra da horretarako egokiena. Horren ondorioz, 116/2016 Dekretua aldatu behar da, eskumen hori zabaltzeko euskal sektore publikoko entitateei, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluan jasotakoaren arabera.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren izena aldatzea ere jasotzen da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategineko hizkuntzaren erabilera inklusiboaren eta ez-sexistaren arloko eskakizunetara egokitzeko.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko otsailaren 18an eginiko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.— Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren hamabigarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita gelditzen da:

«HAMABIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.— Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak egin beharreko nahitaezko txostena, Euskal Herriko Unibertsitateak, toki-entitateek eta haien mendeko organismo eta entitateek eskatuta, Espainiako ekonomiaren desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan xedatua.

1.— Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari dagokio Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan jasotzen den nahitaezko txostena egitea, Euskal Herriko Unibertsitateak, toki-entitateek, eta haien mendeko organismo edo entitateek eskatzen dutenean.

2.— Txosten hori egiteko, dagokion kontratazio-organoak jarduera-kostuen egitura-proposamena bidali beharko dio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, aipatutako 9.7 artikuluan xedatutakoarekin bat. Txostena 20 egun balioduneko epean emango da, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, zuzenketa eskatu bada, dokumentazioa osatu den egunetik aurrera».

Bigarren artikulua.— Beste bi xedapen gehigarri gehitzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuari; honela idatzita geratzen dira:

«HAMAHIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.— Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak egin beharreko nahitaezko txostena, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikuluari dagokionez. Lege horren bidez egiten da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak bere gain hartuko du azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikuluan jasotako obra-emakidetako kontratuen eta zerbitzu-emakidetako kontratuen finantza-jasangarritasunaren azterketa egitea, eginkizun horretarako berariazko organorik sortuta ez duten euskal sektore publikoko entitateen kasuan.

Txosten hori egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorraren ohiko osaera aldatuko da, eta pertsona hauek gehituko zaizkio: kontratazio publikoak ukitzen dituen sektoreen interesak biltzen dituzten enpresa-erakundeen ordezkari bat, kontratazio publikoaren arloan ezagutza eta gaitasun aitortua dituen pertsona bat eta txostena eskatzen duen entitatearen ordezkari bat. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikuluan aurreikusitako nahitaezko txostena egingo du, betiere lizitazioaren aurretik, bi kasu hauetan:

a) Kontratuaren balio zenbatetsia milioi bat eurotik gorakoa denean eta emakidaren eraikuntzari edo ustiaketari ekarpen publikoak egiten zaizkionean, baita emakidaduna finantzatzen laguntzeko edozein neurri dagoenean ere.

b) Emakida esleitzen duen botereak tarifa osorik edo partez bere gain hartzen duen obra-emakidak eta zerbitzu-emakidak direnean, obren edo lehen ezarpeneko gastuen zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa bada.

3.– Era berean, kontratuaren oreka berrezartzeko akordioen txostena egingo da, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 270.2 eta 290.4 artikuluetan jasotako kasuetan, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333.3 artikulua a) eta b) letren arabera txostena jaso duten obra-emakidei eta zerbitzu-emakidei dagokienez, edo, txostenik egin gabe ere, horietan aurreikusitako elementuren bat kontratuan sartzea dakartenei dagokienez, betiere kontratuaren balio zenbatetsia milioi bat eurotik gorakoa bada.

4.– Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 333. artikuluan aipatzen diren txostenek ebaluatuko dute ea proiektuaren errentagarritasuna, inbertsioaren balioaren, emandako laguntzen, espero diren kutxa-fluxuen eta ezarritako deskontu-tasaren arabera lortua, arrazoizkoa den enpresa emakidadunak bere gain hartzen duen eskari-arriskuaren arabera. Ebaluazio horretan, kontuan hartuko da ea emandako laguntzek eskariaren arriskuez bestelako arriskuak, zeinak eragile ekonomikoek jasan behar izaten baitituzte, arindu ditzaketen.

Tarifa emakida esleitzen duen botereak ordaintzen duen obra-emakidako kontratuetan, aldeztu aurretik ebaluatuko da emakidadun enpresari egindako eskari-arriskuaren transferentzia. Enpresak ez badu arrisku hori osorik bere gain hartzen, aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzetan ebaluatuko du errentagarritasuna txostenak.

Kontratuaren oreka berrezartzeko akordioetan, txostenak ebaluatuko du ea ezarritako finantza-konpentsazioek arrazoizko errentagarritasunari eusten dioten apartatu honen lehen paragrafoan xedatutakoaren arabera.

5.– Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak nahitaezko txostena emango du hogeita hamar egun balioduneko epean, botere esleitzzailearen edo beste erakunde kontratatzaile baten eskaera jaso edo botere esleitzzaileak informazio berria eman eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori erdira jaitsi ahal izango da, baldin eta urgentziazko arrazoiak justifikatzen badira txostenaren eskabidean eta espediente horrela izapidetzea deklaratu bada.

6.– Uste bada igorritako informazioa ez dela nahikoa edo argibideren bat behar bada, dagokion dokumentazioa eskatuko zaio organo eskatzaileari, eta eskatzaileak zuzenketa egin dueneko edo dokumentazioa osatu dueneko eguna hartuko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

Halaber, txostenaren hartzaile den organoak edo entitateak Batzorde Iraunkorraren nahitaezko txostenean jasotako gomendioak betetzen ez baditu, arrazoitu egin beharko du txosten batean. Txosten hori dagokion kontratuaren espedienteari erantsiko zaio, eta argitaratu egingo da kontratatzailearen profilean eta Sektore Publikoaren Kontratazioko Plataforman».

«HAMALAU GARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.— Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren izena aldatzea.

Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, dekretu honetan edo beste xedapen batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroari egindako aipamen guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Lizitatzaille eta Sailkatuen Erregistroari egindakotzat joko dira euskarazko bertsioan, eta Registro de Empresas Licitadoras y Clasificadas de la Comunidad Autónoma de Euskadiri egindakotzat gaztelaniazko bertsioan».

AZKEN XEDAPENA.— Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 18a.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzako sailburua,
NOËL D 'ANJOU OLAIZOLA.